

2013-2014 DENBORALDIA

MEDIKU JAGOLEEN SAREA

GRIPEAREN ZAINKETA EAE-n



Osakidetza



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SALUD

AURKIBIDEA

1. Euskal Herriko Mediku Jagoleen Sarea.....	1
1.1. Sarrera.....	1
1.2. 2013-2014 gripe-denboraldiaren bilakaera Euskadin.....	1
1.3. Kasuen karakterizazioa.....	2
1.4. Zainketa mikrobiologikoa.....	4
1.5. Gripe-denboraldien konparazioa.....	6
1.6. Gripearen aurkako txertoaren eraginkortasunaren balioespena.....	7
1.7. Gripearen epidemia-agerraldiak.....	7
1.8. Gripearen birusarekin ospitaleratutako kasu larri egiaztatuak.....	8
1.9. Gripe-sindromearekin lotutako eskaera lehen mailako arretan.....	12
2. Espainian Gripea Zaintzeko Sistema (SVGE).....	15
2.1. 2013-2014 denboraldiko gripe-jarduera.....	15
2.2. Datu birologikoak.....	15
2.3. Gripearen birusarekin lotutako agerraldiak.....	17
2.4. Gripearen birusarekin ospitaleratutako kasu larri egiaztatuak.....	18
3. Gripearen nazioarteko bilakaera.....	19
3.1. Europa.....	19
3.2. Munduko egoera.....	20
4. OMEren aholkuak 2013-2014 denboraldiko gripearen aurkako txertoarentzako.....	22
5. Erreferentzia bibliografikoak.....	23

1. EAE-KO MEDIKU JAGOLEEN SAREA

1.1. Sarrera.

Gripea zaintzeko Euskadiko sareak 1998-99 gripe-denboraldian hasi zuen jarduera, eta egun Espainiako estatuko zaharretakoa da. Aurtengo 2013-2014 denboraldian 49 medikuk parte hartu dute sarean (38 mediku orokor eta 11 pediatra), Osakidetzako Lehen Mailako Arretakoak, Donostiako Unibertsitate Ospitaleko biologia-laborategikoak eta EAEko Zainketa Epidemiologikoaren Unitateetakoak. Gainera, Lurralde bakoitzeko pertsona nagusientzako egoitza bateko medikuek ere parte hartzen dute.

Zainketa-denboraldia, urte-sasoiko gripearen zainketan ohikoa den bezala, 2013. urteko 40. astetik (irailaren 30etik urriaren 6ra) 2014ko 20. astera (maiatzaren 12tik 18ra) bitartekoa izan zen.

Tasak kalkulatzeko izendatzaile gisa erabili den EAEko biztanleria-lagin adierazgarria mediku deklaratzailen kuotaren batura da. Aurtengo 2013-2014 denboraldian 65.177 pertsonak parte hartu dute guztira, hau da, EAEko biztanleriaren % 3,03k.


1.2. 2013-2014 gripe-denboraldiaren bilakaera Euskadin.

Zainketa Sareak gripe-sindromearen 1.289 kasu izan ditu, eta denboraldi osorako tasa metatua 2.283 kasukoa izan zen 100.000 biztanleko.

Denboraldirako ezarritako epidemia-ataria (76,5 kasu 100.000 biztanleko) 51/2013 astean gainditu zen. aste horretako tasa 79,26 kasukoa izan baitzen 100.000 biztanleko. Gripe-jarduera handiena 03/2014 astean detektatu zen, aste horretako tasa 350,4 kasukoa izan baitzen 100.000 biztanleko. Epidemia-kurbak beherantz egin zuen 8/2014 astean, berriz ere epidemia-atariaren azpitik kokatu arte. Aste horretan balioetsitako tasa 61,1 kasukoa izan zen 100.000 biztanleko (1. irudia), beraz, 9 asteko epidemia-uhina izan zen.

1. irudia. 2013-2014ko gripe-denboraldiaren bilakaera.

EAEko mediku jagoleen sarea.



Gripe-jarduera iazko denboraldian baino goizago hasi zen, eta 2013-2014 denboraldian erregistratutako tasarik altuena aurreko 2012-2013 denboraldian epidemia-ataria gainditu zen astearekin bat dator (1. irudia).

Zainketa-sareko lehenengo gripe-isolamendua 2013-2014 denboraldian 47/2013 astean erregistratu zen, B motako birusaren lagin batek positibo eman baitzuen.

1.4 atalean ikusiko dugun bezala, 2013-2014 denboraldian AH3 eta A(H1N1)pdm09 birusen zirkulazio mistoa antzeman zen.

1.3. Kasuen ezaugarriak.

2013-2014 denboraldian erregistratutako kasuen % 49,1 emakumeak izan ziren. % 49,1 gizonak eta % 1,8 ez dago jasota. Erregistratutako kasuetako sintomen maiztasuna 1. taulan agertzen da.

1. taula. Kasuetako sintomen maiztasuna (%)

2013-2014 denboraldia. EAeko Mediku Jagoleen Sarea.


Sintomak	%
Sukarra edo sukar-puntua	% 96,7
Ondoeza gorputz osoan	% 88,8
Eztula.	% 85,7
Sintomak bat-batean agertzea	% 74,2
Buruko mina	% 64,2
Mialgiak	% 64,2
Eztarriko mina	% 61,2
Hotzikarak	% 49,3
Disnea	% 11,8

Arrisku-faktoreei dagokienez, kasuen % 17,7k (228) arrisku-faktoreren bat daukate. % 6,3k arnas gaixotasun kronikoren bat zuen, % 3,5ek zirkulazio-sistemako gaixotasuna, % 2,6k gaixotasun metabolikoa, % 0,8k immunoeskasiak eta % 0,1ek giltzurrunetako gaixotasunak.

Gripearen aurkako txertoa jartzea aholkatzen den arrisku-taldean dauden 214 kasuetatik, % 61,7k ez zuen txertorik jarri.

Adin taldeak kontuan hartuz, 0-4 urteko tartea izan zen eragin handiena jasan zuena (7.226,2 kasu 100.000 biztanleko) eta ondoren 5-14 adin-tartea (3.686,4 kasu 100.000 biztanleko) aurreko denboraldian baino askoz ere tasa txikiagoarekin.

2. irudia. Gripearen eragina adin-taldeka azkeneko lau denboraldietan
EAEko Mediku Jagoleen Sarea.




1.4. Zainketa mikrobiologikoa.

Donostiako Unibertsitate Ospitaleko laborategiak denboraldia hasi zenetik Mediku Jagoleen Sareak bildutako 548 lagin aztertu zituen, eta horietatik % 55,3 (303) mikrobiologikoki egiaztatu ziren. Isolamendu-kopuru altuena 3/2014 astekoa izan zen, detekzio-tasa % 70,6koa (48/68) izan baitzen. 3. irudian 2013-2014 denboraldian antzemandako isolamendu-patroia agertzen da eta 2. taulan isolamendu-patroiaren banaketa adin-taldearen arabera.

3. irudia. Isolatutako gripe-birusak epidemia-asteka. 2013-2014 denboraldia.

EAEko Mediku Jagoleen Sarea.




Birus-motaren arabera, laborategiak egiaztatutako birusen % 99 A motakoak izan ziren eta % 1 B motakoak. Antzemandako A birusen artean, zirkulazio mistoa ikusi zen, % 50,7 A(H1N1)pdm09 izan ziren eta % 49,3 AH3.

2. taula. Isolatutako birus-azpimotak adin-taldeka
2013-2014 denboraldia. EAEko Mediku Jagoleen Sarea.

Adin-taldea	Birus-azpimota			Guztira
	AH3	A(H1N1)pdm09	B	
0-4 urte	18	13	0	31
5 urtetik 14 urtera bitartekoak	28	30	1	59
15 eta 24 urte artean	10	3	0	13
25-44 urte	42	61	2	105
45-64 urte	34	38	0	72
64 urtetik gorakoa	16	7	0	23
Guztira	148 (48,8)	152 (50,2)	3 (1,0)	303

Mikrobiologiaren Zentro Nazionalak, hemaglutininaren arabera, isolatutako 65 gripearen birus bereizi zituen Euskadin (Zainketa Sarekoak eta Zainketa Sarekoak ez direnak) (4. irudia).

4. irudia. Genomikoki bereizitako Euskadiko gripe-anduiak, 2013-2014.




Bereizitako A gripearen birus guztiak 2013-2014 denboraldiko txertoaren barruan sartutako multzo genetiko berekoak ziren.

1.5. Gripe-denboraldien konparazioa.

5. irudiak 1998-2014 denboraldien arteko gripearen epidemia-uhinak eta denboraldi horietan isolatutako birusen azpimotak adierazten ditu.

5. irudia. Gripearen eta birus nagusien bilakaera EAEn, 1998-2014.



Azken lau denboraldietan intentsitate ertain oso antzekoa ikusten da, baina birus-zirkulazio nagusi ezberdinarekin.

1.6. Gripearen aurkako txertoaren eraginkortasunaren balioespena.

Sceening populazioaren metodoaren bidez, % 52,9ko txerto-eraginkortasuna balioetsi zen 2013-2014 denboraldiko gripearen aurkako txertoarentzako, iazko denboraldikoarena baino eraginkortasun txikiagoa.

Zainketa sareak Europako I-MOVE proiektuaren (Monitoring the influenza vaccine effectiveness in the European Union and European Economic Area) barnean dagoen cyc EVA azterketaren (kasuen azterketa eta gripearen kontrako txertoaren eraginkortasuna) seigarren edizioan parte hartu du. Estatu espainiarraren ordezkari gisa, Balear Uharteetako, Gaztela eta Leongo, Nafarroako, Euskadiko, Errioxako eta Melillako Zainketarako sare jagoleek parte hartu dute Mikrobiologiaren Zentro Nazionala eta Epidemiologiaren Zentro Nazionalarekin batera, eta azken hau izan da azterketaren koordinatzailea. Txertoaren Eraginkortasuna (TE) handiagoa izan da A(H1N1)pdm09 birusaren egiaztatutako kasuetan A(H3N2) birusaren kasu egiaztatuetan baino. Adintaldeak kontuan hartuta, txertoaren eraginkortasuna % 40-50ekoa izan zen 15 urtetik beherakoengan eta 64 urtetik gorakoengan A birusaren azpimota bientzako, baina gazte helduengan, aldiz, babesak % 30etik beherakoa izan zen. Txertoa jartzea aholkatzen zaien taldeetan TE handiagoa izan zen, eta azpimarratu beharra dago, gripearen aurkako txertoak egiaztatutako gripearen infekzioak % 40 gutxitu zituela xede-populazioan. Horrek guztiak, populazio honentzako urteroko gripearen aurkako txertoa jartzeko aholku ofiziala indartzen du.

1.7. Gripearen epidemia-agerraldiak.

3/2014 astean influentza AH3 birusaren agerraldi sortu zen (faringe-frotis bidezko 5 laginetan egiaztatua) Gipuzkoako zentro gerontologiko batean, eta 30 egoiliarrengan (23 emakume eta 7 gizon) eragin zuen, %27,3ko eraso-tasarekin. 85 urte izan zen adin-mediana (65-100 urteko tartea).

%93,3k sukarra edo sukar-puntua izan zuen, %86,7k Arnas Infekzio Akutua (AIA) eta %16,7k gripe-sindromea. Kasuetatik hiru ospitaleratu egin behar izan zituzten, eta bat hil egin zen.

Egoiliarren %85,3k txertoa jarrita zuen eta langileen artean, txertoaren estaldura %51,8koa izan zen. Langileen artean ez zen gripe-kasurik izan.

Bizkaiko egoitza batean beste agerraldi bat antzeman zen 8/2014 astean, hau ere influentza AH3 motak eragindakoa. 139 egoiliarretatik 71 kasu identifikatu ziren (66 emakume eta 5 gizon), hau da, %51ko eraso-tasa izan zuen. 88 urte izan zen eragindakoen batez besteko adina (adin-tartea: 55-100; mediana: 90 urte). Gainera, beste 7 kasu erregistratu ziren 52 langiledun plantillan (%13ko eraso-tasa).

Gaixoen %94k sukarra izan zuen, %94k eztula, %8,5ek mialgiak eta %1,4k eztarriko mina. Gaixoen %79k gripearen konplikazioak izateko arrisku-faktoreren bat zuen. Gaixoen %13k ospitaleko arreta behar izan zuen, eta erlazionatutako arrisku-faktoreak zituen 94 urteko pertsona bat hil egin zen.

Gaixoen %97k denboraldi honetako gripearen txertoa jarrita zuen.

Egoitzako 52 langileen %6k txertoa jarrita zuen, baina gaixotu zen langile batek ere ez zuen txertoa jarrita.

Txertoaren eragina kontuan hartu gabe, txertoa jarri denetik txertoaren eraginkortasuna gutxituz doala deskribatzen duten azterketekin lotura eduki dezakete txertoa jarrita duten pertsonen kasu horiek.

1.8. Gripearen birusarekin ospitaleratutako kasu larri egiaztatuak.

2013-2014 denboraldian zehar, Donostia, Gurutzeta eta Basurtuko Unibertsitate Ospitaletako kasuak erregistratu ziren, eta laborategian egiaztatutako gripe kasuekin ospitaleratutako 148 kasuri buruzko informazioa jaso zen. Isolatutako birus guztiak A motakoak izan ziren, horietatik %74,3 A(H1N1)pdm09 azpi-motakoak, %5,4 A(H3N2) azpi-motakoak eta %4,1 azpitipatu gabeko A birusarenak.

%53,4 gizonak ziren (79) eta %46,6 emakumeak (69). Ospitaleratutakoen adina, batez beste, 47 urte izan zen (adin-tartea: 0-93 urte) eta mediana 52 urtekoa. 45-64 urtekoen taldean izan ziren ospitaleratze gehien (3. taula).

3. taula. Gripearen birusarekin ospitaleratutako kasu larri egiaztatuak, adin-taldearen arabera. 2013-2014 denboraldia.

Adin-taldea	Gizonak		Emakumeak		Guztira	
	kop	%	kop	%	kop	%
0-4 urte	13	16,5	6	8,7	19	12,8
5 urtetik 14 urtera bitartekoak	1	1,3	3	4,3	4	2,7
15 eta 24 urte artean	0	-	2	2,9	2	1,4
25-44 urte	11	13,9	18	26,1	29	19,6
45-64 urte	32	40,5	31	44,9	63	42,6
65-74 urte	11	13,9	3	4,3	14	9,5
74 urtetik gorakoa	11	13,9	6	8,7	17	11,5
Guztira	79	54,3	69	46,6	148	100,0

Hala, 25-64 urte bitartekoak dira kasuen %63,2. Adin-patroi hori A(H1N1)pdm09 azpi-motaren zirkulazioa nagusitu zen munduko beste lekuetan ere ikus daiteke.

Arrisku-faktoreen banaketa eta erregistratutako kasu larrien konplikazioak 4. taulan agertzen dira.

4. taula: Arrisku-faktoreak eta konplikazioak.

Egiaztatutako gripe-kasu larriek eragindako ospitaleratzeak, 2013-2014.

Arrisku-faktoreak	%
Arnas gaixotasun kronikoa	22,4
Diabetesa	19,6
Gaixotasun kardiobaskular kronikoa	16,2
Obesitatea	13,8
Immunoeskasia.	13,7
Giltzurrunetako gaixotasun kronikoa	10,1
Gaixotasun onkologikoa	10,3
Gaixotasun hepatiko kronikoa	6,1
Konplikazioak	%
Pneumonia	83,1
HADS*	28,6
Baterako infekzioa	13,5
Hainbat organoren funtzionamendu okerra	5,4
HADS* Helduaren arnaseko distress-sindromea	

Gaixoen %94,6k gripearen konplikazioak izateko arrisku-faktoreen bat zuten. Haurdun zeuden emakumeengan 6 kasu erregistratu ziren (%4,1).


Gripearen aurkako txertoa jasotzeko hautagaiak ziren ospitaleratutako gripe-kasu larri egiaztatuen %67k ez zuten txertorik hartu.

23 pertsona hil ziren (%15,5), 13 gizon eta 10 emakume. Pertsona horien %95,7k gripeka eragindako konplikazioen arrisku-faktoreak zituen eta %59,1ek ez zuten txertoa jarrita, gripearen aurkako txertoa jasotzeko arrisku-taldeetan egon arren.

80 kasu ZIUn sartu behar izan zituzten (%54,1), eta horietatik %51,2 emakumeak ziren. ZIUko batez besteko egonaldia 11,3 egunekoa izan zen, eta mediana 5 egunekoa. Gripearen aurkako txertoa hartzeko hautagaiak ziren ZIUn sartutako gaixoen %75,4k ez zuten txertorik hartu 2013-2014 denboraldian.


Ondoren, lau zainketa-denboraldietan zehar gripearen egiaztatutako kasu larri ospitaleratuei buruz lortutako datuak alderatzen dira. Zainketa-sistemak izaera kualitatiboa du eta kasuen karakterizazio-datuak eskaintzen ditu, baina ezin daitezke populazioarengan izan duen maiztasuna edo eraginari buruzko ondoriorik atera. 5. irudian ZIUko sarrerak alderatzen dira zainketa-denboraldiaren arabera.

5. irudia. ZIUn sartutako gripe-kasu larri egiaztatuak (%).
EAE, 2010-2014.



2010-2011, 2011-2012, 2012-2013 eta 2013-2014 denboraldietan 165, 32, 42 eta 148 ospitaleratze izan ziren gripearengatik hurrenez hurren hiru ospitale parte-hartzaileetan (Donostia, Gurutzeta eta Basurtu); hala ere ZIUn sartu beharra izan zuten gaixoen ehunekoak alderantziz proportzionala da kasu-kopuruarekiko.

6. irudia. Gripe egiaztatuarekin ospitaleratutako kasu larriak eta birusaren azpi-mota nagusia. EAE, 2010-14.



Birus-patroi ezberdina erregistratu zen denboraldiaren arabera (6. irudia), 2010-2011 eta 2013-2014 denboraldietan berbera izan zen, gehienbat A(H1N1)pdm09 azpi-mota isolatu baitzen.

2010-2011 denboraldian kasuen %67,3 25-64 adin-tartean erregistratu ziren, eta lehen aipatu bezala 2013-2014 denboraldian %62,2 kasu erregistratu ziren adin-tarte berebean. Hala ere, adin-tarte honetan kasu gutxiago erregistratu ziren 2011-2012 eta 2012-2013 denboraldietan, %43,8 eta %38,1 hurrenez hurren (5.taula).

5. taula. Gripearen birusarekin ospitaleratutako kasu larri egiaztatuak, adin-taldea eta denboraldiaren arabera. 2010-2014 denboraldia.

Denboraldia	2010-11	2011-12	2012-13	2013-14
Adin-taldea	Kop. (%)	Kop. (%)	Kop. (%)	Kop. (%)
0-4 urte	16 (9,7)	4 (12,5)	11 (26,2)	19 (12,8)
5 urtetik 14 urtera bitartekoak	6 (3,6)	0 (0,0)	5 (11,9)	4 (2,7)
15 eta 24 urte artean	1 (0,6)	0 (0,0)	1 (2,4)	2 (1,4)
25-44 urte	44 (26,7)	4 (12,5)	4 (9,5)	29 (19,6)
45-64 urte	67 (40,6)	10 (31,3)	12 (28,6)	63 (42,6)
65-74 urte	15 (6,1)	6 (18,8)	7 (16,7)	14 (9,5)
74 urtetik gorakoa	16 (9,7)	8 (25,0)	2 (4,8)	17 (11,5)
Guztira	165 (100)	32 (100)	42 (100)	147 (100)

Lau denboraldietan pneumonia izan zen sarrien agertu zen konplikazioa (6. taula).

6. taula. Konplikaziodun gripearekin ospitaleratutako kasu larriak (%).
2010-2014 denboraldia.


Denboraldia	2010-11	2011-12	2012-13	2013-14
Konplikazioak	%	%	%	%
Pneumonia	78,8	70,0	85,7	83,1
Baterako infekzioa	12,8	24,1	21,4	13,5
HADS	20,8	3,7	16,7	28,6
Hainbat organoren funtzionamendu okerra	5,1	3,7	4,8	5,4
Kasuak guztira	158	32	42	147

1.9. Gripe-sindromearen ondoriozko lehen mailako arretaren eskaera.

Lehen-mailako Arretan 30.197 kasu erregistratu ziren 2013-2014 denboraldian gripe-sindromearengatik (astelehenetik ostiralera 40/2013 eta 20/2014 asteen bitartean), hau da, tasa metatua 1.388,9 kasukoa izan zuen 100.000 biztanleko. Kontsulta gehien 3/2014 astean izan ziren, 226,3 kasu egon ziren 100.000 biztanleko (7. irudia), Medikuz Jagoleen Sareak gripe gehien antzeman zuenean, hain zuzen ere.

7. irudia. Gripe-sindromearengatiko asteko maiztasun-tasa.


Osabide. 2013-2014 denboraldia.



0-4, 5-14, 15-64 eta 65 urte edo gehiagoko adin-taldeetan gripearengatik 436, 325, 245 y 94 kontsultako tasa erregistratu zen 100.000 biztanleko, hurrenez hurren (8. irudia).


8. irudia. Gripe-sindromearengatiko kontsulta-tasak adin-taldearen arabera.

Osabide. 2013-2014 denboraldia.



Lurreldeka, kontsulta-tasa handienak honako hauek izan ziren: 206 kontsulta 100.000 biztanleko Araban, 234 Bizkaian, eta 221 Gipuzkoan. Kontsulta gehien 03/2014 astean egon ziren hiru Lurreldeetan (9. irudia).

9. irudia. Gripe-sindromearengatiko kontsulta-tasak, Lurraldeka.
Osabide. 2013-2014 denboraldia.



2. Espainian Gripea Zaintzeko Sistema (SVGE).

2.1. Gripe-jarduera (SVGE).

2013-2014 denboraldian, Espainiako gripe-jarduera arina izan zen. Batez ere A(H1N1)pdm09 gripe-birusaren zirkulazioa egon zen A(H3N2) birusarekin batera, azken birus hau epidemia-uhin osoan zehar mantendu baitzen.

Eragin-tasak gorantz egin zuen 50/2013 astetik aurrera, eta 1/2014 astean denboraldi honetarako ezarritako ataritik gorako balioak erregistratu ziren (47,44 kasu 100.000 biztanleko). Epidemia-uhinaren gorakada 4/2014 astean heldu zen eragin-puntu gorenera (urtarrilaren 20tik 26ra). Aste horretan 294,19 kasu egon ziren 100.000 biztanleko.

9/2014 astetik aurrera, balioak epidemia-aurreko balioetara itzuli ziren (oinarrizko atariaren azpitik) eta epidemia-aldiak zortzi aste iraun zuen.

Epidemia-uhinaren puntu gorenera 0-4 urte bitarteko umeen taldea iritsi zen lehenengo, 3/2014 astean, eta hurrengo astean gainerako taldeak, gripe-jarduera orokorraren puntu gorenarekin bat eginez.

Adin-taldeak kontuan hartuz, gripearen eragin-tasa metatu handienak 0-4 urteko taldekoak izan ziren (3.571,99 kasu/100.000 biztanleko), eta ondoren 5-14 urteko taldekoak (2.198,69 kasu/100.000 biztanleko), 2011-2012 denboraldian gertatu zen bezala, eta aurreko denboraldietan ez bezala, gripearen eragin-tasa metatu handienak 5-14 urteko taldekoak izan ziren. 15-64 eta 64 urtetik gorako taldeetan gripearen eragin-tasa metatuak 1.350,59 eta 532,94 kasu izan ziren 100.000 biztanleko, hurrenez hurren.

2.2. Datu birologikoak (SVGE).

Gripearen lehenengo zainketa-detekzioa Asturiasen antzeman zen 40/2013 astean. 2013-2014 denboraldian 6.800 detekzio jakinarazi zitzaizkion SVGEri guztira, eta horietatik %37 zainketa-iturrietatik zetozen, eta %63 zainketakoak ez ziren iturrietatik.

Gripe-birusen lagin positiboak etengabe gehitu ziren 49/2013 astetik aurrera (%16) 3/2014 atera arte, aste horretan birusaren detekzio-tasa gorenera iritsi baitzen.

Zainketa-sareak 2.545 lagin positibo detektatu zituen, 2.511 (%98,6) A gripearen birusarenak izan ziren, 27 (%1,1) B motako birusarenak eta 7 (%0,01) C motako birusarenak. Azpi-mota duten A gripearen 2.413 birusetatik, 1.422 (%59) A(H1N1)pdm09 birusarenak izan ziren, eta 991 (%41) A(H3N2) birusarenak.

Gainera, zainketakoak ez ziren iturriek 4.255 detekzio jakinarazi zituzten (A, %99,3, B,%0,6 eta C, %0,1), horietatik %71 A(H1N1)pdm09 izan ziren, eta %29 A(H3N2), azpitipatutakoen artean (%68).

Birus-detekzio guztietatik %98,9 A gripearen birusarenak izan ziren [%66 A(H1N1)pdm09 eta %34 A(H3N2), azpitipatutakoen artean (79%)], %0,9 B gripearen birusarenak eta %0,2 C gripearen birusarenak.


Denboraldian zehar, lagin positiboaren portzentajea %50etik gora mantendu da 52/2013 astetik 7/2014 atera (abenduaren 23tik otsailaren 16ra). Horrek epidemia-uhinak irauten duen zortzi asteetan birus-transmisioaren maila altua mantendu dela esan nahi du.

Adin-taldeka, birusaren detekzio-tasa handienak 45-64 urteko taldean ikusi ziren (%55), eta ondoren 15-44 urteko taldean (%53).

Mikrobiologiaren Zentro Nazionaleko OMERen Gripearen Zentroak (CNM, Carlos III.a Osasun Institutua) gripearen 504 birus bereizi zituen genetikoki. Analisi filogenetikoak honako hau erakutsi zuen: A gripearen 487 birusetatik [269 A(H1N1)pdm09 birusa izan ziren, horiek guztiak A/StPetersburg/27/2011 birusaren antzekoak, eta 218 A(H3N2) birusak izan ziren, horiek guztiak A/Texas/50/2012 birusaren antzekoak] (10. irudia). Bereizitako A gripearen birus guztiak denboraldiko txertoaren barruan sartutako multzo genetikokoak izan ziren.

17 B birus ere bereizi ziren genetikoki, 6 Victoria motakoak eta 11 Yamagata leinukoak (B/Wisconsin/1/2010 talde genetikokoak). Aurtengo txertoak Yamagata leinua barne hartzen du, baina ez du balioko Victoria leinuarentzako.

10. irudia. Gripearen birusaren karakterizazio genetikoak. 2013-2014 denboraldia.



Fuente: Sistema de Vigilancia de la Gripe en España

2.3. Gripearen birusarekin lotutako agerraldiak (SVGE).

2013-2014 denboraldiko 46/2013 eta 6/2014 asteen bitartean gripearen 15 agerraldi erregistratu ziren zazpi autonomia-erkidegotan (Andaluzia, Aragoi, Balear Uharteak, Gaztela eta Leon, Katalunia, Nafarroa eta Euskadi). Hamar egoitza geriatrikoetan gertatu ziren, bat ikastetxe batean, bi erakunde sanitarioetan eta bi egonaldi luzeko zainketa-erakundeetan. Horietan guztietan gripearen A birusagatiko infekzioa egiaztatu zen, zortzi AH3 birusak eragindakoak eta zazpi A(H1N1)pdm09 birusak eragindakoak.

301 kasu jakinarazi ziren, eta horietatik 94 (%31) ospitaleratuak izan ziren eta 12 (%4) hil egin ziren. Eraso-tasa globala %16koa izan zen (301/1.848), eta eraso-tasa txikiagoa izan zen txertoa hartu zuten kasuen artean (%3) txertoa hartu ez zutenen artean baino (%36).

Gripearen aurkako txertatze-estaldura aldatu egin zen instituzioaren arabera, %87koa (%47-%95) egoitza geriatrikoetan, eta %100ekoa egonaldi luzeko beste instituzio batzuetan.

2.4. Egiaztatutako gripe-kasu larriek eragindako ospitaleratzeak (SVGE).

Egiaztatutako gripe-kasu larriek eragindako 2.475 ospitaleratze jakinarazi ziren 17 autonomia-erkidegotako ospitaleetan, eta horietatik 641 kasu (%26) ZIUn onartuak izan ziren eta ez zen heriotzarik egon eta 301 kasu (%12) hil egin ziren.

% 53 gizonak ziren, eta % 47 emakumeak. Adin ugalkorrean (15-49 urte) zeuden 251 emakumeetatik, 50 (%20) haurdun zeuden. Kasuen adin-mediana 58 izan zen (kuartilarteko tarteak: 41-73). Gripe-kasu larriek eragindako ospitaleratze kasuen proportzio handiena 64 urtetik gorakoengan ikusi zen (%38), ondoren 45-64 urtekoengan (%32) eta 15-44 urtekoengan (%19).

Kasuen %99 baino gehiagotan A gripearen birusa egiaztatu zen (%76a A(H1N1)pdm09 azpi-mota eta %34a A(H3N2) azpi-mota, azpitipatuen artean).

Egiaztatutako gripe-kasu larriek eragindako ospitaleratzeen %83k gripe-konplikazioen arrisku-faktoreen bat zuen eta %33k gripearen aurkako txertoa hartuta zuen denboraldian.

14 urtetik gorakoengan, arrisku-faktore ohikoenen artean, birikien gaixotasun kronikoa (%30), gaixotasun kardiobaskular kronikoa (%28) eta diabetesa (524) nabarmendu ziren, eta baita obesitate morbidoa ere ($GMI \geq 40 \text{ kg/m}^2$), kasuen %11n. 15 urtetik beherakoengan sarrien identifikatutako arrisku-faktoreak birikietako gaixotasun kronikoa (%5) eta immunoeskasia (%5) izan ziren, eta baita gaixotasun kardiobaskular kronikoa ere (%3).

Egiaztatutako gripe-kasu larriek eragindako ospitaleratzeetan 64 urtetik gorako taldekoak hil ziren batez ere. %95ek gripe-konplikazioen arrisku-faktoreen bat zuen eta %39k denboraldiko gripearen aurkako txertoa hartuta zuen. Heriotzei dagokionez, egiaztatutako gripe-kasu larriek eragindako ospitaleratzeen eta ZIUn sartutakoen artean ikusitako heriotza-tasa aurreko hiru denboraldietako epidemia-aurreko tartean kokatu zen.

2-7/2014 asteetan zehar, heriotza-tasak pixka bat gora egin zuela ikusi zen 15-64 urtekoen taldean arrazoi guztiengatik, gripe-jarduera handieneko aldiarekin batera.

3. GRIPEAREN NAZIOARTEKO BILAKAERA

3.1. Europa.

Europan, gripe-jarduera ohi baino beranduago hasi zen eta abenduaren amaieran gehikuntza arin bat izan zuen eta urtarrilean gehikuntza pixka bat nabarmenagoa. 2012-2013 denboraldian bezala, Ekialdeko Europan jarduera Mendebaldeko Europan baino pixka bat beranduago hasi zen eta jardueraren puntu gorena aldatu egin zen eskualdearen arabera. Halaber, denboraldiaren ezaugarriak joeraren, birus nagusiaren eta herrialde ezberdinen arteko intentsitatearen aldakortasun handia izan ziren.

Oro har, jarduerak behera egin zuen martxoaren amaieran, herrialde batzuetan izan ezik. Herrialde horietan apirilera arte epidemia-arteko mailetatik gora mantendu zen jarduera. Aurreko denboraldiarekin alderatuz gero, 2013-2014 denboraldiak intentsitate gutxiagoa eta birusen detekzio-tasa baxuagoa izan zuen (% 40,6 denboraldi honetan eta % 60 aurrekoan).

Bulgaria, Grezia, Moldavia eta Mazedonian jarduera handia erregistratu zen, baina herrialde horietan izan ezik, gainerako herrialdeetan jarduera txikia edo ertaina izan zen.

Influentza A(H1N1)pdm09 eta A(H3N2) birusek baterako zirkulazioa izan zuten eskualdean, herrialdearen arabera birus nagusia aldatu egiten da. A(H1N1)pdm09 izan zen nagusi Europa Iparraldeko herrialde gehienetan, eta A(H3N2) Ekialdeko herrialdeetan, Alemanian, Irlandan, Luxenburgon eta Espainian.

7.083 zainketa-lagin positiboetatik, 6.906 (%98) A motako birusak izan ziren eta 177 (%2) B motakoak. Azpitipatuetatik (6.462) 3.451 (%53) A(H1N1)pdm09 izan ziren eta 3.011 (%47) AH3 birusa.

40/2013 astetik, zortzi herrialdek egiaztatutako gripe-kasu larriek eragindako 4.770 ospitaleratze jakinarazi zituzten, 4.711 (%99) A birusarenak eta 59 (51) B motako

birusarenak. Azpitipatuen artetik (3.229), 2.391 (%74) A(H1N1)pdm09 ziren eta 839 (%26) AH3. A(H1)pdm09 motako birusaren proportzio handiagoa antzeman zen ZIUn sartutako gaixoengan, 1.409 (%86) azpitipatutako 1.647 kasuetatik, ZIUn sartu ez ziren gaixoengan baino, 982 (%62) 1.582 azpitipatuetatik.

Adina jasota zegoen 3.849 kasuetatik, 1.431 (%37) 40 eta 64 urte bitartekoak ziren, eta 1.427 (%37) gaixo 64 urtetik gorakoak ziren, urte sasoiko zainketan ikusitako antzeko proportzioa.

421 heriotza erregistratu ziren, 416 kasutan (%99) A motako birusa egiaztatu zen eta 5 kasutan (%1) B motakoa. Azpitipatutako A motakoetan (302), 247 (%82) A(H1N1)pdm09 ziren eta 55 (%18) A(H3N2).

3.2. Munduko egoera.

2013-2014 gripe-denboraldia urte-sasoiko ohiko patroia izan zuen, eta eskualde gehienetan jarduera-puntu gorenak urtarrilaren hasieran izan ziren.

Intentsitate altua ikusi zen gaixotze- eta heriotza-tasa altuarekin batera, A(H1N1)pdm09 birusaren zirkulazioa nagusitu zen herrialdeetan. Birus hau argi eta garbi nagusitu zen Ipar Amerikan eta Asia Iparraldean.

A(H1N1)pdm09 birusa nagusitu zen eskualdeetan 20-64 urtekoen taldeari 65 urtetik gorako taldeari baino gehiago eragin zion. B birusaren zirkulazioa gehitu zenez, eragin gehien jasan zuten taldeen aldaketa gertatu zen, eta beraz 64 urtetik gorakoak eta 16 urtetik beherakoak izan ziren eragin gehien jasan zutenak.

Birus-andui zirkulatzailen eta txerto trivalentearen arteko antzekotasunak bat zetozen, eta ez zen beraien artean aldaketa antigenikorik antzeman.

Ipar Amerika (Kanada, Estatu Batuak eta Mexiko):

2013-2014 denboraldian, gripe-jarduera aurreko denboraldietan baino lehenago hasi zen, azaroan, eta abenduaren amaierara arte gorantz egin zuen intentsitate handiarekin,

urtarrileko bigarren astean puntu gorenera iritsiz. Maila altuak mantendu egin ziren otsailera arte, ondoren, beherantz egin zuen, eta apirilean B motaren zirkulazioa gehitu egin zela ikusi zen.

Oro har, gripe-jarduerak intentsitate txikiagoa izan zuen 2012-2013 denboraldian baino, denboraldi horretan jarduera handia izan baitzuen.

Eskualdeko birus nagusia, A(H1N1)pdm09 izan zen, 2012-2013 denboraldian ordea, A(H3N2) izan zen gehien detektatu zena.

Kanadan, Influentza A(H1N1)pdm09 birusak 20 eta 64 urte bitarteko helduengan izan zuen eragina batez ere, denboraldi pandemikoan bezala eta aurreko denboraldietan ez bezala, aurreko denboraldietan eragin gehien jasan zuen taldea 64 urtetik gorakoena izan baitzen. Gripearekin lotutako gaixotze- eta heriotza-tasa aurreko denboraldikoaren antzekoa izan zen.

Estatu Batuetan ere 20-64 urte bitarteko taldean izan zuen eragin gehien, eta talde honetako ospitaleratutako kasuen %60k 18 eta 64 urte bitartean zituen. Denboraldi honetan ZIUKo sarrera-portzentaje handiagoa antzeman zen (%22) aurreko denboraldian baino (%16).

Denboraldi amaieran influentza B birusaren isolamendu-gehikuntzak eragin handia izan zuen 64 urtetik gorako helduengan eta 5 eta 19 urte bitarteko umeengan.

Ekialde Ertaina eta Afrika Iparraldea:

Denboraldia aldakorra izan zen, eta jarduera-joera eta -maila ezberdinak izan zituen herrialdeen arabera. Oro har, jarduera txikiagoa izan zen aurreko denboraldietan baino eta eremu batzuetan jarduera txikia izan zen. A(H1N1)pdm09, A(H3N2) eta B birusen baterako zirkulazioa detektatu zen, nagusitasun ezberdinarekin herrialdearen arabera. B motako birusaren zirkulazioa handitu egin zen denboraldiaren amaieran, bereziki martxoan. Egipton, jarduera handia eta gogorra izan zen denboraldian zehar, influentza A(H1N1)pdm09 birusagatik. Iran, Jordania eta Turkian jarduera gehitu egin zen A(H3N2) birusarengatik denboraldiaren lehen fasean, eta ondoren B motako birusaren detekzioak gehitu ziren denboraldiaren fase berantiaragoetan. Jordanian jardueraren

puntu gorena azaroan izan zen gainerako herrialdeetan ez bezala. Israelek jarduera berantiarra goa izan zuen, Pakistanek bezala, hiru birusen isolamenduarekin.

Asia Iparraldea:

Gripe-jarduerak ohiko joera jarraitu zuen, abenduan hasi eta puntu gorenera urtarrilaren amaieratik otsailaren erdialdera bitartean iritsiz. A(H1N1)pdm09, A(H3N2) eta B birusen zirkulazio mistoa erregistratu zen. Txinan, A(H1N1)pdm09 birusaren detekzioa aurreko denboraldietakoa baino handiagoa izan zen eta denboraldiaren erdialdean gailendu zen. Ipar Korean, aldiz, B birusa denboraldi hasieratik isolatu zen eta denboraldiak aurrera egin ahala, A(H1N1)pdm09 eta A(H3N2) birusak proportzio berdinetan isolatu ziren. Japonian A(H1N1)pdm09 birusaren isolamenduak erregistratu ziren gehienbat.

4. OMEren aholkuak 2013-2014 denboraldiko gripearen aurkako txertoarentzako.

OMEk 2014-2013 denboraldian ipar hemisferioan erabiliko den gripearen aurkako txertoa nola osatu jakiteko gomendioak argitaratu ditu, 2014ko otsailean. Osagai hauek barne hartzen ditu:

- A/California/7/2009/(H1N1)pdm09ren andui analogoa
- A/Texas/50/2012(H3N2)ren andui analogoa
- B/Massachusetts/2/2012ren andui analogoa (Yamagata leinukoa)

OMEK B gripearen bi andui barne hartzen dituzten txerto tetrabalenteek aurreko hiru birusak eta B/Brisbane/60/2008ren (Victoria linajea) antzeko anduia izatea gomendatzen du.

http://www.who.int/influenza/vaccines/virus/recommendations/2014_15_north/en/

5. Bibliografia-erreferentziak.

- European Influenza Surveillance Network (EISN)
<http://www.ecdc.europa.eu/en/activities/surveillance/EISN/Pages/index.aspx>
- FluNet. WHO
http://www.who.int/influenza/gisrs_laboratory/flunet/en/
- Global Influenza Surveillance and Response System (GISRS). WHO.
http://www.who.int/influenza/gisrs_laboratory/en/
- Weekly epidemiological record. 6 June 2014, vol. 89, 23 (pp. 245–256). Review of the 2013–2014 winter influenza season, northern hemisphere.
<http://www.who.int/wer/2014/wer8923.pdf>
- Sistema de Vigilancia de la Gripe en España (SVGE)
<http://vgripe.isciii.es/gripe/inicio.do>